

EBAZPENA, 2025EKO OTSAILAREN 14KOA, EUSKO JAURLARITZAKO INGURUMEN ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARIARENA, BASAURIKO (BIZKAIA) «BASCONIA IPAR-MENDEBALDEA» 01 EREMU MISTOAREN ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIAREN IRISMEN-DOKUMENTUA EGITEKOA.

AURREKARIAK

2024ko azaroaren 7an, Basauriko Udalak eskabidea aurkeztu zion Eusko Jaurlaritzaren garai hartako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren Zuzendaritzari, Basauriko «Basconia ipar-mendebalde» 01 eremu mistoaren Antolamenduko Plan Bereziaren ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egin zezan, bat etorrita Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearekin eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin.

Eskabideari dokumentazio hau erantsi zitzaion: Planaren zirriborroa, hasierako dokumentu estrategikoa eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak V. eranskinean dakarren formularioa. Aipatu dekretuak planen eta programen ingurumen-ebaluazioaren prozedura arautzen du.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea gauzatu du (2024ko abenduaren 3an hasita), halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan. Horien emaitza espedientean dago jasota. Era berean, izapidearen hasieraren berri eman zitzaion Basauriko Udalari.

Halaber, espedientean jasotako dokumentuak eskuragarri egon ziren Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren webgunean, interesdun orok ingurumenaren arloan egokitze jotzen zituen oharak egin ahal izateko.

Indarrean dagoen legerian txostenak jasotzeko ezarritako epea bukatuta eta jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 19. artikuluan xedatutakoaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 60. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, plan horiek ingurumenean eragin nabarmenak izan ditzaketenean; hala, ingurumena babesteko maila handia bermatuko da, garapen jasagarria sustatzeko asmoz.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 72. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin behar zaie administrazio publiko batek abian jarritako plan eta programei, baita haien aldaketei eta berrikuspenei ere (II.A eranskinean zerrendatu dira), legezko edo erregelamenduzko xedapen batek edota Gobernu Kontseiluaren erabaki batek beharturik prestatu badira, baldin eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera legez behartutako proiektuek etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen badute eta eranskin horren 6. apartatuan jasotako arloei buruzkoak badira.

Abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68. artikulua xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak zehaztea zein den ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena, eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.

Bestalde, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 18.1 artikuluan xedatzen du irismen-dokumentua hasteko eskabideari zer dokumentu erantsi behar zaizkion, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez dioten alderdietan, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaldu eta osatzen du hasierako dokumentu estrategikoari erantsi beharrekoaren edukia.

Azkenik, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, baita urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentzia-dokumentuaren edukiaren ingurukoak eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiaren ingurukoak, hurrenez hurren.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu dira eta honako hauek guztiak ikusi dira: 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; 410/2024 Dekretua, abenduaren 3koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzeko den gainerako araudia. Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – Basauriko «Basconia ipar-mendebaldea» 01 eremu mistoaren Antolamenduko Plan Bereziaren (aurrerantzean, Plana) ingurumen-ebaluazio estrategikoa buruzko irismen-dokumentua egitea, ingurumen-ondorioetarako bakarrik eta honako baldintza hauetan:

1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena

Jarduketa-eremua, 76.005,87 m²-koa, Basauriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean jasota dagoen «Basconia ipar-mendebaldea» 01 Igorritako Antolamendua duen Eremu Mistoa da. Sektorea honako hauekin da mugakide: ipar-ekialdean, «Basconia ipar-ekialdea» Igorritako Antolamendua duen Eremuarekin (bizitegi-eremua); ipar-mendebaldean, Nerbioi ibaiaren ibilguarekin; hego-mendebaldean, Castejón-Bilbo trenbidearekin; eta hego-ekialdean, Larrazabal kalearekin.

Planak «Basconia ipar-mendebaldea» eremuaren antolamendu xehatua ezarriko du, gaur egun indarrean dagoen Basauriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean xedatutakoaren arabera, eta hirigintza-eduki xehatua finkatuko du, lurzoru eraldatzeko hirigintza-jarduketa bat egiteko lurzoru urbanizatua eraberritzeko. Horretarako, gaur egun hiri-lurzoru finkatugabe gisa sailkatuta dagoen lurzoru urbanizatua hiri-lurzoru finkatuaren egoerara eraldatuko da.

Hauek dira Planaren helburu zehatzak, besteak beste:

- Hiri-eremuak berreskuratzea eta eremu horiek hiri-bilbean integratzea, ingurune funtzionalak eta kalitatezkoak sortzeko.
- Ingurumen-baldintzatzaileak errespetatzea.
- Gaur egun ez ezik, etorkizunean sor daitezkeen egoeretan ere bideragarria eta jasagarria den konponbide teknikoa bilatzea.
- Produkzio-lurzoru urbanizatuak sortzea industria-sarea eta hirugarren sektorea dibertsifikatzen eta indartzen laguntzeko.
- Antolamendu osoan malgua izatea, ingurune aldakorrera egokitzeko.
- Egindako inbertsio publikoak berreskuratzea.

Planaren irismenak honako hauek ezartzea barne hartzen du: hirugarren sektoreko produkzio-erabilerak (kategoria guztietan), ohiko erabileraren osagarri direnak (zuzkidura pribatu bateragarriak, industria bateragarria, biltegi bateragarriak) eta eremuaren funtzionamendurako beharrezkoak diren zuzkidura-erabilerak.

Eremuari esleitutako erabilera orokorra mistoa da: produkzio-erabilera eta hirugarren sektorekoa.

Merkataritza- edo industria-eraikinak etxadi handietan jarriko dira, partzelazio malgua egitea eta erabilera mistoetarako (hirugarren sektoreko erabilera eta produkzio-erabilera) erabiliko diren bloke irekietan eraikitzea ahalbidetzen baitute. Erabilera horiek sortzen dituzten premiak, hala nola aparkatzeko eta zamlanak egiteko premiak, eremuaren barruan konpondu beharko dituzte, araudi orokorraren arabera.

Eremuaren eraikigarritasuna 64.414,24 m²-koa da guztira, honela banatuta: 42.414,24 m² sestra gainean eta 12.000 m² sestra azpian.

Sistema orokor gisa honako hauek definitzen dira: alde batetik, berdegune bat Ibaizabal ibaiaren ibilguaren alboan, eta, bestetik, egituratzaile batzuk eremuaren hego-ekialdean. Sistema orokor berdea Nerbioi ibaiaren ibilguaren alboan dago, jarduketaren iparraldeko muga, eta helburu hauek ditu: ibaiertza babestea, ibaiertzaren baldintza naturalak zaintzea, ibaia hiri-bilbean integratuko duen aisialdirako gune bat eskaintzea eta oinezkoentzako sarbidea erraztea hiritik. Bide-sistema orokorra Larrazabal kaletik abiatzen da, gunea egituratzen

duen ardatza da eta hirigunearen iparraldea (Kalero eremua) eta ekialdetik sartzeko bideak (N-634 errepidea) lotzeko kanala. Larrazabal kaletik aurrera, bigarren mailako bidea dago.

Tokiko zuzkidura gisa tokiko bideak eta berdeguneak aurreikusten dira, baita herrigunearen alboan dagoen ibilgailuentzako aparkalekua kontserbatzea ere, aparkaleku hori bateragarria delako berdeguneen sarearekin; izan ere, sare horretan sartzeko ez ezik, herriguneko aparkaleku-zuzkiduraren osagarri gisa ere erabil daiteke. Lehendik dagoen udal-beilatokia zuzkidura gisa kontserbatu da.

Tokiko berdeguneak Larrazabal kaleko maldaren erdialdean daude. Aparkalekuaren egungo erabilera birmoldatu eta integratzea proposatzen da (aparkalekua ezinbestekoa da herriguneko aparkalekuaren zuzkidura osagarri gisa); hots, berdegunean integratzea, bertara iristeko sarbide gisa. Hortaz, tokiko berdeguneak eremuaren hegoaldean dagoen malda handia antolatu eta urbanizatzen du, eta herrigunetik ibilguaren ertzeko berdegune orokorrera iristeko bidea da.

Tokiko bide-sistema ibilgailuentzako, oinezkoentzako eta bizikletentzako sarbide gisa eratzen da, eta «Basconia ipar-ekialdea» Igorritako Antolamendua duen Eremuarekin batera (bizitegi-eremua) proposatzen da. Arku-forma du, Larrazabal kaletik abiatzen da eta ibilgura ematen duen eremuko fatxada berria eratzen du, eta, aldi berean, sistema orokor gisa definitutako berdegunerako sarbidea da; Larrazabal kalera itzultzean, fatxada bat sortzen du ondoko «Basconia ipar-ekialdea» Igorritako Antolamendua duen Eremuaren (bizitegi-eremua) antolamenduak babesten duen pabiloi industrialerako. Produktzio-lurzatietarako sarbideak elkarren ondoan dauden bi lurzatiek partekatzen dituzten pasabideen bidez planteatzen dira. Bizikleta-sarea, jarduketa osoa hartzen duena, berdeguneetan sartzen da, iparralderantz doa eta bide berdeen inguruan aurreikusitako beste proiektu batzuekin lotzen da.

Alternatibei dagokienez, hasierako dokumentu estrategikoak 0 alternatiba edo «esku ez hartzeko» alternatiba —hau da, egungo egoeratzat hartzen dena eta garatzeko aukerarik ez duena— aztertu du, baita hiru antolamendu-alternatiba ere: 1. alternatiba, Hiri Antolamenduaren Plan Orokorraren (2020) proposamenari dagokiona, eta antzekoak diren beste bi alternatiba (2. alternatiba eta 3. alternatiba). Horietatik guztietatik, 3. alternatibak berdegunearen azalera handiagoa eskaintzen du.

1. alternatibak, Plan Orokorrari dagokionak, ipar-ekialdeko eta ipar-mendebaldeko gunetan banatzen du eremua. Ipar-ekialdeko eremuan bizitegi-erabilera aurreikusten da; ipar-mendebaldeko eremuak, aldiz, industria-erabilera eta hirugarren sektorekoa hartuko du.

2. alternatiba ipar-mendebaldeko eremura mugatzen da, eta honako hauek hartzen ditu barnean: merkataritza- eta industria-erabilerako lau eremu, ibaiaren alboan dagoen berdegune handi bat, lehendik dagoen beilatokia zuzkidura-sistema orokor gisa integratzea, eta, berdegune bat mugatzea, mendebalderantz, gaur egun autoak aparkatzen dituzten zelaigunea hartzen duena, «aparkalekuarekin bateragarria den berdegune» gisa. Bide-sareak espaloiak, bidegorria eta aparkalekuak barne hartzen ditu, eta antolamenduarekin bateragarriak diren eta mantendu daitezkeen bi eraikin identifikatzen dira: beilatokia eta pabiloi industrial bat.

3. alternatiba ere ipar-mendebaldeko eremura mugatzen da eta merkataritza- eta industria-erabilerara bideratutako lau lurzati proposatzen ditu, eta hego-ekialdean, tokiko merkataritza-sistamarako eremu bat. Kasu honetan, iparraldeko eremua «oinetakoentzako berdegune» deitzen zaion eta autorik ibiltzen ez den bide-sistema batekin lotzen da, eta bidegorriak eremu osoa inguratzen du. 2. alternatiban bezala, antolamenduarekin bateragarriak diren eta mantendu daitezkeen bi eraikin barne hartzen dira: beilatokia eta pabiloi industrial bat. Azkenik, hasierako dokumentu estrategikoarekin bat etorritik, Larrazabal kalean eremu txiki bat «ukitutako lurzatiek garatzen bada edo osorik eraberritzen bada, etorkizuneko lagapen-eremu» gisa mugatu da.

Hasierako dokumentu estrategikoan egindako alternatiben ingurumen-analisiaren arabera, 0. alternatiba baztertu egin da udalerririk eremu mistoak edukitzeko beharri erantzuten ez diolako. Horrez gain, adierazi da alternatiba horrek ez diela eremuko ingurumen-arazoei erantzuten, hala nola landaredi inbaditzailea izatea edo kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak. 1. alternatiba baztertu da egungo hirigintza-irizpideei erantzuten ez dielako; gainera, adierazi da proposamena orientagarria dela, ez dela loteslea, eta 2. eta 3. alternatibek baino berdeguneen azalera txikiagoa aurreikusten dutela. 2. eta 3. alternatibei dagokienez, ingurumen-eraginak antzekoak izango lirateke, baina 3. alternatibak berdegunearen azalera handiagoa sortzen du; beraz, azken alternatiba da egokiena ingurumenaren ikuspegitik.

Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, Plana garatzeko beharrezkoa izango da dagokion urbanizazio-proiektua egitea eta onartzea. Proiektu horrek doikuntzak egin ahal izango ditu, betiere justifikatuta, ezaugarri teknikoak dagokienez eta aurreikusitako urbanizazioaren trazari dagokionez. Gainera, urbanizazio-proiektuaren osagarriak izango diren obren proiektu tekniko espezifikoak egitea aurreikusten da. Proiektu horiek azpiegiturak

definitzeko edo birmoldatzeko izango dira, betiere horrelakorik egin behar bada. Urbanizazio-obra eta eraikuntza-obra aldi berean egin ahal izango dira. Eredu osoa barne hartzen duen egikaritze-unitate bakar bat mugatu da.

2. Aplikatzekoak diren ingurumen-helburu estrategikoak eta jasangarritasuneko printzipioak eta irizpideak

Ingurumen-azterketa estrategikoak berariaz justifikatu beharko du Planak nola ezartzen dituen araudietatik, estrategietatik eta oro har onartutako programetatik eratorritako ingurumen-helburuak; 2030eko V. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoak eta jarduera-ildoak hartuko dira Plana egiteko funtsezko oinarri gisa. Gainera, kontuan hartu beharko dira urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan jasotako irizpideak (211/2012 Dekretua, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena) eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean ezarritako helburuak eta printzipioak, baita Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legean zehaztutako helburuak eta printzipioak ere.

Era berean, kontuan hartuko dira Planari aplikatu behar zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

Zehazki, garapen jasangarriko printzipio hauek gidatuko dute Plana:

- a) Lurzorua zentzuz eta modu intentsiboan erabiltzea eta lehendik ere artifizializatuta dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, nekazaritza-balio handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizatetik babestuta.
- b) Hiri-segregazioa, hiri-barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea, irisgarritasuna sustatuz, lurzoruaren erabileren eta mugikortasunaren plangintza integratuaren eta hiri-egitura dentso, trinko eta konplexuen bidez.
- c) Lurzoruaren zigilatzea murriztea, lurzorua jasangarritasun handiagoz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.
- d) Ur-masen egoera ekologiko ona zein baliabide horren erabilera jasangarria lortzea.
- e) Habitata eta espezieak, natura-ingurumena eta konektagarritasun ekologikoa zaintzea eta hobetzea.
- f) Natura-ondarearen kontserbazioa gailentzea lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren eta kultura-ondarearen gainetik.
- g) Saihetsezin gisa ebaluatutako kapital naturalaren galerak konpentsatzea, eta konpentsazio horretarako beharrezkoak diren mekanismoak ezartzea.
- h) Politika publiko sektorialetan, bereziki, politika-, ekonomia- eta gizarte-arloko erabakiak hartzean, natura-ondarea babesteko, kontserbatzeko, kudeatzeko, modu jasangarrian erabiltzeko, hobetzeko eta lehengoratzeko betekizunak txertatzea.
- i) Biodibertsitatearen galera geldiaraztea, ekosistemak leheneratzea eta lurzoruaren artifizializazioa mugatzea.
- j) Paisaiak eta kultur ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- k) Ondare geologikoa kontserbatzea.
- l) Natura-baliabideen erabilera jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.
- m) Energia-aurrezpena, efizientzia eta energia berriztagarrien nahiz kogenerazioaren erabilera sustatzea.
- n) Aire garbia bermatzea, baita zarata eta argi-kutsadura handien pean bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- o) Klima-aldaketarekiko kalteberatasuna gutxitzen laguntzea, eta, horretarako, kaltea arintzeko eta aldaketara egokitzeko neurriak integratzea.
- p) Arrisku naturalak minimizatzea.
- q) Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, lurzoruaren agenteen eta erabiltzaile potentzialen berme juridikoa eta jarduera indartuz.
- r) Natura-ondareari eragin diezaioketen esku-hartzeetan zuhurtasun-printzipioa zabaltzea.

3. Esparru geografikoa eta ingurumen-garrantziko eremuak

Planaren eremua herrigunearen iparraldean dago, eta La Basconia industria siderurgikoaren industria-instalazio zaharrek utzitako hutsunea okupatzen du, hirigune industrialen eta eremu zaharkituen eraldaketaren ondoriozko hiri-garapen berrien artean.

Eremuan, ez da ingurumen-balio nabarmenik hautematen. Ez du ukitzen Natura 2000 sareko naturagune babesturik, ezta inbentarioan sartutako beste gune babestu edo natura-interesekorik ere. Halaber, ez dauka inbentario edo katalogoren batean jasotako paisaia-baliorik, eta ez du ukitzen EAEko Interes Geologikoko Lekuen Inbentarioan jasotako interes geologikoko lekurik, ezta EAEko korridore ekologikorik ere. Adierazi behar da, eremuaren ondoan, Ibaizabal ibaia Bizkaiko Azpiegitura Berde-Urdinaren korridore urdina dela (ABU.12 kodea).

Litologiari dagokionez, porositate bidezko iragazkortasun ertaina duten metakin alubialak eta alubial-kolubialak daude, eta pitzadura bidezko iragazkortasun txikia duten tuparri-kareharrien, tuparrien, kareharrien eta kalkareniten alternantzia dago eremuaren hegoaldean. Topografiari dagokionez, lautada alubiala dago, Ibaizabal ibaiaren ibai-ekintzaren bidez sortu dena. Kota handienak (55,00 m itsas mailaren gainetik) eremuaren hegoaldean daude, trenbideko maldaren alboan, eta txikienak (29,00 m itsas mailaren gainetik) ibaiaren ibilguaren alboan. Eremu gehiena hartzen duen plataforma, oro har, 32 metrotik 38 metrora artekoa da, eta beheranzko malda txiki bat du mendebaldeantze. Malda garrantzitsuak % 20tik gorakoak dira trenbideetarantz igotzeko puntu berezian, baina eremuaren gainerako lekuetan ez dira % 2,5era iristen. Lurzoruak erabat artifizializatuta daude eta ez dira egokiak nekazaritza-erabilera emateko.

Eremua «Ibaizabalen unitate hidrologikoan» dago, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoan (ES017). Zehazki, Ibaizabal IV (ES068MAR002850) gainazaleko ur-masaren isuri-arroan dago. Eremu horren egoera globala, 2019-2023 urte anitzeko balorazio-aldirako, «ona baino okerragoa» da. Eremuaren barruan ez dago ur-ibilgu iraunkorrik, baina Ibaizabal ibaia eremuaren kanpoaldetik doa ipar-mendebaldetik, eta, neurri batean, ibilguak zaintzeko eremuaren barruan kokatzen du. Eremuak ez du barne hartzen Plan Hidrologikoko Eremu Babestuen Erregistroko elementurik.

Planak antolatzen duen lurzorua «Hegoaldeko antiklinorioaren» (ES017MSBT017-006 kodea) lurpeko ur-masaren gainean dago eta, oro har, egoera onean dago. Eremua aipatutako lurpeko ur-masaren Balmaseda-Elorrio sektore kuaternarioaren barnean dago. Akuiferoen kalteberatasuna txikia da eremu horretan, eta eremuak ez du interes hidrogeologikoko gunerik ukitzen.

Eusko Jaurlaritzaren 2007ko landarediaren kartografiaren arabera (geoEuskadi), eremua landaredi erruderal-nitrofiloa duten lugorriek eta hiri-eremuek osatzen dute. Horrek hasierako dokumentu estrategikoa berresten du; izan ere, dokumentu horretan adierazten da, gainera, landaredi inbaditzailea duten eremu handiak daudela (*Cortaderia*, *Robinias*, *Acacias*, *Bugdalias* eta *Dittrichia*) eta baita landaredia belarkara eta makal-kimuak dituztenak ere. Bestalde, adierazten da ibilgutik hurbil dagoen eremuan ur-bazterreko landaredia dagoela eta zuhaitz gutxi daudela; gehienak makalak dira, eta gutxi batzuk haltzak. Ez da flora mehatxaturik topatu. Ibaizabal ibaiari lotuta, Euskadiko datu espazialen azpiegiturak adierazten du Batasunaren intereseko lehentasunezko habitata —*Ibaiertzeko haltzadi eurosiberiarra (91E0*)*— dagoela, eta azalera txiki bat geratzen dela Planaren eremuaren barruan.

Dirudienez, eremuan dagoen fauna hiri-inguruneetara egokitutako espezie arruntek osatzen dute. Planaren eremuan ez da zuzenean barne hartzen fauna mehatxatua kudeatzeko planen xede den gunerik, baina Ibaizabal ibaia, eremuaren ondoan doana, «hobetu beharreko tarte» gisa sartuta dago bisoi europarraren Kudeaketa Planean (Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 19ko 118/2006 Foru Dekretua). Ez proiektu Planaren eremuan, ez haren ingurune hurbilean, ez da topatu Batasunaren intereseko hegazti nekrofagoen ezein kudeaketa-planetan sartutako eremurik, ezta Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduaren bidez (2016/05/23ko EHAA, 96. zk.) izendatutako abifaunarentzako babes-eremurik ere.

Eremua Basauriko ikuspen-arroari dagokio, eta eremu antropogenikoan dagoen hiri-paisaia da. Eremua ez dago EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoan sartuta (Eusko Jaurlaritza, 2005).

Planak antolatutako eremuan, La Basconia industria metalurgikoaren elementu eraikiak daude. Elementu horiek tokiko intereseko kultura-ondarea osatzen dute, eta hauexek dira:

- Ijezketa berriko pabiloia (20-4 fitxa)
- Ijezketa berriko pabiloia (20-5 fitxa)
- La Basconia SA (20. fitxa)

Kanpoko ertzean, eremuaren mugaketaren ondoan dauden artean, Ibarrondo etxea (20. eta 21. fitxak) eta Larrazabal 7 etxea (82. fitxa) aipatu behar dira. Era berean, adierazi behar da eremua «Basconia ipar-ekialdea»

05 Igorritako Antolamendua duen Bizitegi Eremuaren antolamenduan sartzen den galdaragintza-pabiloiaren (20-7 fitxa) ondoan dagoela. Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, 2022an sute bat izan zen eta sute horrek kalteak eragin zituen ondare horretan.

Ingurumen-arriskuei dagokienez, eremua uholde-arrisku handiko eremuaren (UAHE) barnean sartzen da (ES017-BIZ-12-1 kodea, ibai-jatorrikoa), eta 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholdeen ondorioz uholde-arriskuko eremua da; era berean, eremu hau lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioan (2022) jasotako lurzatiaren barnean sartzen da (48015-00055 kodea, industria-motakoa eta, partzialki, zabortege-motakoa). Gainera, eremua trenbide-trazadurako 100, 200 eta 600 metroko eragin-zerrendaren barruan dago, salgai arriskutsuen garraioan istripuak izateko arrisku handia dago, muturreko higadura-prozesuak izan ditzaketen gainazal batzuk ditu eta, eremuaren mendebaldeko muga, kanpoko ertzean, baso-sutea izateko arrisku oso handiari lotutako landaredia dago.

Beste arrisku batzuei dagokienez, ez da sismikotasunaren, akuiferoen kalteberatasunaren, SEVESO enpresak hurbil egotearen edo salgai arriskutsuen garraioan istripuak izateko arrisku handia duten errepideak hurbil egotearen ondoriozko arrisku handirik topatu.

Eremuaren egoera akustikoari dagokionez, hasierako dokumentu estrategikoak Basauriko zarata-mapan (2019) oinarritutako atariko azterketa egin du, eta honako hau ondorioztatu du: «... oro har, eremuaren zati handienez, soinu-maila oso baxua edo baxua da,...». Nolanahi ere, adierazi da ondorengo prozesuetan, eta ingurumen-izapideen barruan, azkenean proposatutako antolamenduaren xehetasunarekin egindako azterlan akustiko bat erantsiko dela.

4. Jarduketak kokatzeko eremu desegokiak

Ingurumenaren aldetik problematikoak diren eta gerora proposamenak gauzatzean zaindu beharko diren eremuak detektatu beharko ditu ingurumen-azterketa estrategikoak. Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da eremuaren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu ahulak edo kalteberak ebaluatzeak aukera emango duena.

Illo horretan, *a priori*, desegokiak izan daitezke uholde-arriskuko eremuetako hirigintza-garapen berriak. Planaren eremua uholde-arrisku handiko eremuaren (UAHE) barnean sartzen da (ES017-BIZ-12-1 kodea, ibai-jatorrikoa), eta 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholdeen ondorioz uholde-arriskuko eremua da. Azterketan justifikatu beharko da planeko proposamenek betetzen dutela urtarilaren 24ko 35/2023 Errege Dekretuaren I. eranskineko 43., 45. eta 46. artikuluetan ezarritakoa. Errege-dekretu horren bidez, demarkazio hidrografiko hauen plan hidrologikoak berrikustea onartu zen: Kantauri Mendebaldeko, Guadalquivirreko, Ceutako, Melillako, Segurako eta Jucarreko demarkazio hidrografikoak eta Kantauri Ekialdeko, Miño-Sileko, Dueroko, Tajoko, Guadianako eta Ebroko demarkazio hidrografikoen Espainiako zatia. Aztertuko da, orobat, plana bateragarria ote den Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Uholde Arriskua Kudeatzeko Planean ezarritakoarekin. Alderdi horiek zehatz-mehatz aztertu beharko dira, arlo horretan indarrean dagoen legeria betetzen dela justifikatzeko.

Era berean, desegokia izan daiteke soinu-baldintza txarrak dituzten zonetan hirigintza-garapen berriak egitea. Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, oro har, soinu-maila oso txikia edo txikia da eremukoa ia gune osoan. Nolanahi ere, alderdi hori zehatz-mehatz aztertu beharko da, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan jasotako balioak betetzen direla justifikatzeko.

Halaber, kontuan hartu beharko da kultura- eta ondare-intereseko elementuak daudela, eta, hala badagokio, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legea bete beharko da.

Bestalde, Ibaizabal ibaiaren ur-bazterreko eremuak, ur-bazterreko landaredia dutenak (landaredi hori Batasunaren intereseko habitat gisa —Ibaiertzeko haltzadi eurosiberiarra (91E0*)— identifikatuta dago Euskadiko datu espazialen azpiegituran), eta bisoi europarraren Kudeaketa Planean sartutako guneak (Ibaizabal ibaian hobetu beharreko tartekak) errespetatu eta, nolanahi ere, hobetu behar diren guneak dira, ingurumen-kalitatearen baldintzei dagokienez, berreskuratzeko-jarduketan bidez, proposatutako plangintzaren esparruan.

Azkenik, positibotzat hartzen da lurzoru artifizializatuen balioa azpimarratzea erabilera berriak emanez birziklatuz eta udalerriko beste eremu batzuetako lurzoru naturala eraldatzea saihestuz. Horri dagokionez, adierazi behar da Planeko eremua lhobek egindako inbentarioan, hots, Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioan jasotzen den lekuan (48015-00055 kodea) sartzen denez, ekainaren 25eko 4/2015 Legea —Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa— betetzen dela justifikatu beharko dela.

5. Aurretiaz egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-azterketa laburra

Eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei egindako kontsulten izapidea amaitu ondoren, Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritzaren eta Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritzaren (biak Eusko Jaurlaritzakoak) erantzunak jaso dira, baita honako hauenak ere: Nekazaritza Zuzendaritza Nagusia; Lurralde Garapeneko Zuzendaritza Nagusia; Berrikuntza eta Errepide Kudeaketako Zuzendaritza Nagusia; eta Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia (guztiak Bizkaiko Foru Aldundikoak) eta, azkenik, Euskal Trenbide Sarea (ETS). Sagarrak Ekologista Taldeak egindako alegazio bat ere badago.

Segidan, jasotako txostenetan adierazitako ingurumen-alderdirik nabarmenenak laburtuta daude:

Natura-ondareari dagokionez:

Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritzak jakinarazi duenez, kontuan hartu behar den elementu garrantzitsuena Ibaizabal ibaia da, baita ibaiari lotutako ur-bazterreko landaredi guztia ere, eta, ondorioztatzen duenez, ez da aurreikusten ur-bazterreko landaredi horrek eta ibaiak eraginik jasoko dutenik «berdegunea» izango den eremuan daudelako. Hala eta guztiz ere, Zuzendaritza horrek ingurumen-azterketa estrategikoa egiteko garaian kontuan izan behar diren xehetasun batzuk aipatu ditu:

- Landaredi aloktono inbaditzailea dagoenez, landaredi hori kentzeko eta kudeatzeko garaian, espezie horien hedapena kontrolatzeko neurriak hartu beharko dira, eta haiek desagerrarazteko prozedura ere zehaztu beharko da.
- Beharrezkoak diren lur-mugimenduak egiten direnean, lurzoru kutsatuak kudeatzeko ezarritako prozedura betez kudeatu beharko dira. Ibai-ekosisteman (ur-bazterreko landaredia barne) ez dela eraginik izango bermatu beharko da.
- Era berean, azpimarratu behar da garrantzitsua dela Ibaizabal ibaiaren ur-bazterren inguruan ingurumen-kalitatea leheneratu/hobetu ahal izateko neurriak ezartzea.

Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak honako hau azpimarratu du:

- Ibaizabal ibaiaren bazterrean Batasunaren intereseko «91EO* Haltzadiak eta lizardiak» habitata dago.
- Basauriko udalerrian *Lucanus cervus* koleoptero saproxilikoaren espeziea dagoela aipatu da. Intsektu hori «interes bereziko» espezie gisa dago jasota Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan.
- Ibaizabal ibaia eremutik igarotzen denean, «hobetu beharreko tartetzat» jotzen da, bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) kudeaketa-planean xedatutakoaren arabera. Eremu horretan igaraba (*Lutra lutra*) ere egon daiteke.
- HAPBaren kartografiak bisoi europarraren Bizkaiko kudeaketa-plana aplikatuko den eremuaren azalerak, hau da, jabari publiko hidraulikoarenak eta haren zortasun-eremuarenak —HAPBaren eremuaren barruan daudenak— irudikatu behar ditu.
- Bizkaiko Lurralde Historikoko azpiegitura berde-urdinaren proposamenean (2023ko ekaina) Ibaizabal ibaia, Planaren eremutik igarotzen denean, konektore urdin gisa («ABU.12 Ibaizabal») dago jasota.
- Planaren helburuak eta planaren justifikazioa ez ezik, planean egiten diren proposamenen zehatzen justifikazioa ere ingurumen-ebaluazio estrategikoaren esparruan aztertu behar dira, Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeko 9/2021 Legeak ezarritako printzipioak eta, bereziki, honako hauek kontuan hartuta:
 - Natura-ondarearen kontserbazioa gailentzea lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren eta kultura-ondarearen gainetik.
 - Politika publiko sektorialetan sartzea, bereziki eremu politikoko, ekonomikoko eta sozialeko erabakietan, natura-ondarea babesteko, kontserbatzeko, kudeatzeko, modu jasangarrian erabiltzeko, hobetzeko eta lehengoratzeko betekizunak.
 - Zuhurtasun-printzipioa aplikatzea natura-ondarean eragin dezaketen esku-hartzeetan.
- HAPBaren kartografiak bisoi europarraren Bizkaiko kudeaketa-plana aplikatuko den eremuaren azalerak, hau da, jabari publiko hidraulikoarenak eta haren zortasun-eremuarenak —HAPBaren eremuaren barruan daudenak— irudikatu behar ditu. «Ibai-ibilguen kontserbazio eta hobekuntza aktiboa» 2.2.1 zuzentarau nagusia Bisoi europarra Bizkaian kudeatzeko planean (118/2006 Foru Dekretua) jasota dagoena, aplikatu behar da, eta HAPBak ziurtatu beharko du bisoi europarraren habitatak zaindu, mantendu edo

berreskuratuko direla. Zehazki, bisoi europarraren «hobetu beharreko tartea» hirigintza-plangintzan aurreikusitako eraikuntza-espazio libreen parte izango dira.

- Habitata eta espeziea beharrezkoak diren baldintzetan mantentzera zuzendutako babes-neurriak ezarriko dira, baita habitata berreskuratzen zuzendutako zuzenketa-neurriak ere, habitatak espeziearen gutxieneko eskakizunak betetzen ez dituen kasuetan.
- Batasunaren intereseko lehentasunezko habitata («91E0* Haltzadiak eta lizardiak») berreskuratu egin beharko da bisoi europarra Bizkaian kudeatzeko planaren aplikazio-eremuaren barnean sartzen diren azaleretan, hots, jabari publiko hidraulikoan eta haren zortasun-eremuan gutxienez.
- Zuhazti autoktono heldua (hostozabal autoktonoak) zaindu egin beharko da eta hirigintza-plangintzan aurreikusitako eraikuntzarako espazio libreen parte ere izango da.
- HAPBaren araudiak honako betebeharrak jasoko du: bai urbanizazio berrien obrak egiteko, bai obra-lizentziak emateko, sustatzaileek nahitaez bete beharko dituzten baldintzak jaso beharko dira, espezie exotiko inbaditzaileen Espainiako katalogoa arautzen duen abuztuaren 2ko 630/2013 Errege Dekretuan jasotako flora-espezie inbaditzaileen foku berrien sorrera gutxiagotzeko.

Sagarrek Ekologista Taldeak eskatu du antolamendu-alternatibaren azterketa zabaltzeko eta eremua birnaturalizatzeko aukera sartzeko.

Jabari publiko hidraulikoa eta hari lotutako babes-eremuak babesteari dagokionez:

Uraren Euskal Agentziak honako hau jakinarazi du:

- Eremuaren ondoko ertzean dagoen ibarbasoa modu eraginkorrean leheneratzeko, Hiri Antolamenduko Plan Berezia «Ingurumena berreskuratze eta paisaia integratzeko proiektu» bat erantsi beharko du eta proiektu horretan espezie autoktonoak landatzea eta dagoen landaredi inbaditzailea kentzea barne hartuko dira. Aurrekontu-partidak eta egikaritze-epeak zehaztuko dira.
- Etorkizuneko ingurumen-azterketa estrategikoan argi eta garbi adierazi beharko da eraikin berriek, osagai hidraulikoak, ingurumen-arlokoak eta hirigintza-arlokoak kontuan hartuta egindako ur-bazterren sailkapenaren arabera, 15 metroko atzerapena errespetatu behar dutela Ibaizabal bideratze-lerrora.

Gainera, Uraren Euskal Agentziak gogorarazi du Jabari Publiko Hidraulikoaren babes-eremuetan (zortasun- eta zaintza-eremuak) egiten diren jarduketak guztiek Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren nahitaezko baimena lortu beharko dutela aldez aurretik. Baimen hori Uraren Euskal Agentziak izapidetuko du.

Landa-lurzoruari dagokionez:

Bizkaiko Foru Aldundiaren Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusiak jakinarazi du proposatutako jarduketak hiri-lurzoruan duela eragina, dagoeneko artifizializatuta dauden lurzoruen erabiltzen direla balio estrategiko eta natural handiko lurzorua babesteko, eta Nekazaritza eta Basogintzaren Lurralde Plan Sektorialean ez duela eraginik.

Sagarrek Ekologista Taldeak eskatu du antolamendu-alternatibaren azterketa zabaltzeko eta eremua lehen sektorearekin zerikusia duten lanetarako erabiltzeko aukera gehitzeko.

Mugikortasun jasangarriari dagokionez:

Bizkaiko Foru Aldundiaren Berrikuntza eta Errepide Kudeaketako Zuzendaritza Nagusiak adierazi duenez, Plana egokia da mugikortasun aktibo eta jasangarriari dagokionez, eta ondo txertatzen da hierarkikoki gainetik dagoen indarreko bizikleta-plangintzan, salbu eta eremu horretan aurreikusitako Bizkaiko Bizikleta-bideen Lurralde Plan Sektorialaren L1 bizikleta-linea nagusia gauzatzeko behin-behineko aurreikuspenari dagokiona. Bizkaiko Bizikleta-bideen Lurralde Plan Sektorialean ezarritako epeak betetzeko, Zuzendaritza honek proposatu du Larrazabal kalean aldi baterako bizikleta-tarte itzulgarri bat egitea, etorkizunean proposatutako antolamenduak erraz onartuko duena. Era berean, jakinarazi du beharrezkoa dela eremuaren barruko bizikleta-bideak Bizkaiko Bizikleta-bideen Lurralde Plan Sektorialeko bizikleta-bideekin lotzea. Bide hori gaur egun prestatzen ari dira Kaleroren, aparkalekua zeharkatu ondoren, eta Bolueta/Bilbo artean.

Kalitate akustikoari eta airearen kalitateari dagokionez:

Sagarrek Ekologista Taldeak eskatu du eremuko airearen egungo kutsaduraren eta aurreikus daitekeen kutsaduraren ebaluazio zehatza egiteko, eta azterlan akustikoa aurkezteko, proposatutako trenbide-alternatibekin lotutako proiektuak kontuan hartuta.

ETS Euskal Trenbide Sareak jakinarazi du, alde batetik, nahitaezkoa dela hots-kutsadurari buruzko araudian ezarritakoa betetzea, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuari dagokionez, eta, bestetik, Udalak eskumena duela azterketa akustikoaren ondoriozko zuzenketa-neurriak behar bezala jartzen direla egiaztatzeko, bai eta zuzenketa-neurrien eraginkortasuna zehazten duten kontrolak egiten direla egiaztatzeko ere.

Ingurumen-arriskuei dagokienez:

Sagarrek Ekologista Taldeak uholde-arriskuari buruzko azterketa sakonagoa egiteko eskatu du, klima-aldaketaren ondoriozko beste arrisku batzuk kontuan hartzeko, eta uholde-arriskuari aurre egiteko jarduera-plan espezifiko bat aurkezteko edo plan horren beharra Planaren dokumentazioan sartzeko.

Uraren Euskal Agentziak jakinarazi du planean berariaz adierazi beharko dela etorkizuneko urbanizazio-proiektuak azterlan hidrauliko bat izan beharko duela, obrek uholde-arriskuan duten eragina aztertuko duena, indarrean dagoen araudia betetzen dela bermatzeko, eta proiektu horren ondorioz ez dela areagotzen uholde-arriskuaren aurrean pertsonen eta ondasunen segurtasunaren kalteberatasuna. Era berean, jakinarazten da, drainatze jasangarriko hiri-sistemei dagokienez, hirigintza-garapen berriek zoladura edo okupazio iragazgaitzaren kopurua gutxiagotu egin beharko dutela eta behar-beharrezkoa den azaleretan bakarrik erabili, eta haien ordez drainatze jasangarriko hiri-sistemak (DJHS) erabili beharko dituztela (zoladura iragazkorrak, ekaitz-tangak edo -gailuak eta abar), eta Plan Bereziak mota horretako sistema posibleen proposamena eta ebaluazioa egin beharko dituela.

Kultura-ondareari dagokionez

Euskal Kultur Erakundearen txostenak jasotzen duenez, jarduera-eremuan La Basconia SA lantegiarenak diren eraikinak daude (Bizkaiko Labe Garaiak). Eraikin horiek babes ertaineko proposamena dute: La Basconia SA (20. fitxa):

- lizeketa berriko pabiloia (20-4 fitxa)
- lizeketa berriko pabiloia (20-5 fitxa)

Jarduera-eremuaren ertzean Larrazabal etxea (82. fitxa) —tokiko babesaren proposamena duena— eta Ibarrondo etxea (20. eta 21. fitxak) —babes ertainaren proposamena duena— daude, eta badirudi aurreikusitako jarduerak ez dietela eragiten.

Euskal Kultur Erakundearen irizpideekin bat etorritik, komenigarria da Larrazabal 7 etxearen kasuan (82. fitxa), hots, toki- edo udal-mailan babesteko proposatu den etxearen kasuan, esku-hartzeak egiten behar badira, egiten diren esku-hartzeak etxeen bolumetria, kanpoko irudia eta oinarritzko banaketa tipologikoa eta egiturazkoa errespetatzea eta egituraren material generikoa mantentzea, «Sendotzea» eta «Zaintzea eta apaintzea» izeneko esku-hartze kategoriak erreferentziatzat hartuta, aplikatzekoa den legeriaren arabera.

6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu behar diren funtsezko alderdien definizioa eta irismena

Ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, azterketa) Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du, eta haren osagarri erabiliko da, halaber, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotakoa.

Aurrekoarekin bat etorritik, garatzen diren apartatuek honako eskema metodologiko hau bete beharko dute:

1. Proposatutako Planaren deskribapena
 - 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak
 - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena
 - 1.3. Plangintza-alternatibak
2. Ingurumenaren ezaugarrien zehaztapena
 - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
 - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak
3. Ingurumen-ondorioak
4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak.
5. Ingurumena zaintzeko programa
6. Ingurumen-laburpena
7. Laburpen ez-teknikoa

Ebaluatzen den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste da azterketak alderdi hauetan sakondu behar duela, jarraian adierazten den zabaltasun- eta zehaztasun-mailarekin:

6.1. Planaren deskribapena

Deskribatu egin beharko da zer alderdik osatzen duten Plana, eta argi eta garbi identifikatuko da Plana gauzatzearen ondoriozko etorkizuneko ekintzetatik zeinek dakarten ingurumenean ondorio kaltegarriak izateko arriskua. Hori guztia honako apartatu hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

a. Planarekin lortu nahi diren helburu zehatzei buruzko laburpen txiki bat izango du Azterketak. Gainera, labur-labur azaldu beharko da nola hartu diren kontuan, Plana egitean, ingurumena babesteko helburuak eta jasangarritasun-printzipio eta -irizpideak, ebazpen honetako 2. apartatuan jasotakoak.

b. Hierarkian Planaren gainera dauden planak edo programak identifikatuko dira. Azaletik deskribatuko dira Planaren xedearekin edo eremuarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, baita Planari aplikatu behar zaizkion ingurumena babesteko irizpide, helburu eta zehaztapenak ere. Hierarkian Planaren gainera dauden plan edo programen onespenez egintzaren aipamena eta data aurkeztuko dira, eta plan edo programa horien ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin den ala ez zehaztuko da.

c. Hala badagokio, adierazi beharko da zer irizpide eta zehaztapen ezarri diren hierarkiaz Planaren gainera dauden planen ingurumen-adierazpen estrategikoan, baita plana garatzeko beste tresna batzuetan ezarritakoak ere, baldin eta ebaluatu beharreko planaren eremuari edo xedeari aplikatzekoak badira. Ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztuko da, eta zehaztu egingo da zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren, eta kontsulta-gunerako esteka txertatuko da.

d. Adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta planarekin hierarkia-harremanik ez duten plan eta programetan —beste eremu batzuetakoak: Batasuna, Espainia, autonomia-erkidegoa edo tokiko esparrua—, baldin eta aplikatu beharrekoak badira.

Zehazki, eta, besteak beste, honako plan eta arau hauek hartuko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).
- Bilboko metropoliaren eremu funtzionaleko Lurralde Plan Partziala.
- EAEko Ibaierantzak eta Errekaertzak Antolatzeako Lurralde Plan Sektoriala.
- Bizkaiko Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala.
- Basauriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2022-2027).
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (2022-2027).
- Euskal Autonomia Erkidegoko uholdeen ziozko Larrialdiko Plan Berezia (2021eko martxoa).
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.
- 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa.
- 1/2024 Legea, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoarena eta Klima Aldaketarena.

6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

a. Planaren irismenak ezin hobeto definituta geratu beharko du. Planaren aplikazioaren ondorioz planteatzen diren ekintzen deskribapen zehatz bat egingo du Azterketak, eta haiek lotura izan beharko dute Planak eragindako eremuan indarrean den hirigintza-antolamenduaren aldean dakartzan aldaketekin edo xehakapenekin, baldin eta ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzaizkete, betiere eremuaren garapenerako beharrezkoak diren jarduketak guztiak aintzat hartuta.

Behar besteko xehetasunez deskribatuko dira Planak azkenean hartutako garapen-alternatiba eta haren ondoriozko jarduketak zehatzak, eta hartutako hirigintza-konponbidea justifikatu beharko da.

b. Planaren proposamenak gauzatzeko erabiliko diren proiektu eta jarduketaren ezaugarriei buruzko aurreikuspena egingo da.

Azterketak, hala badagokio, Plana esparru duten eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar duten proiektuak identifikatu beharko ditu, eta garapen-baldintzak eta proiektu horiek garatzeko unean ahalik eta kalte gutxien sortzeko baldintzatzaileak ezarri beharko ditu.

c. Ingurumenean eragina izan dezaketen Planeko ekintzak deskribatu eta kokatuko dira, eta garrantzi handienekotik txikienekora hierarkizatuko dira, kontuan hartuta haien kokapen zehatza, izaera, garrantzia eta

baliabide naturalen kontsumoa. Horrela deskribatutako plan-ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori Azterketaren hurrengo ataletan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

d. Plana onartu ondoren, haren garapena zehaztu eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, baita Planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusiko da garapen-tresna edo -proiektu horien ingurumen-ebaluazioa egin beharko dela, hala badagokie.

e. Nolanahi ere, Plana garatzeko zenbat denbora aurreikusten den erantsiko da, eta, hala badagokio, aurreko apartatuan azaldutako ekintzetarako denbora-aurreikuspena zehaztuko da.

f. Epigrafe honetan bildutako informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraldearen erabilera adierazi beharko da, baita ingurumen-eragin nabarmenak ekartzeko arriskua duten Planaren aurreikuspen eta jarduketak ere. Informazio kartografikoa atxiki beharko da eta, gutxienez, honako hauek jasoko ditu: eremuaren mugaketa, zonakatzeko zehatza eta jarduketa guztien kokapena, pdf (georreferentziatuta) eta *shape* formatuetan, berrikuspen-lana errazteko.

6.1.3. Plangintza-alternatibak

a. Azaletik deskribatuko dira Plana egiteko prozesuan kontuan hartu diren alternatiba guztiak. Alternatiba horiek bideragarriak izan behar dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta hauei buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknikoak, garapen-denbora, kudeaketa, antolamendua, natura-baliabideen erabilera edo beste edozein alderdi. Era berean, 0 alternatiba —esku ez hartzeko alternatiba— ere hartuko da kontuan, erreferentziatutako haxe hartuta: jarduera-eremuaren alderdi garrantzitsuek izango duten bilakaera probalea Planaren proposamenak aplikatu ezean.

b. Alternatiba horien irismena deskribatuko da, eta zehaztuko da zer alde dagoen alternatiba bakoitzaren arabera Planean jasotako proiektuen eta ekintzen eta 6.1.2.b apartatuan deskribatutako proiektuen eta 6.1.2.c apartatuan deskribatutako ekintzen artean.

c. Kontuan hartutako plangintza-alternatibak baztertzeko eta proposatutako alternatiba azkenik hautatzeko arrazioen laburpena ere bilduko da.

d. Aztertutako alternatibak kartografikoki jasoko dira.

6.2. Ingurumenaren egoeraren ezaugarriak zehaztea

Azterketak deskribatu beharko du nolakoa den ingurumenaren uneko egoera (alderdi nagusiak azalduta) Planaren eragin-eremuan. Deskribapen horretan, elementu abiotikoen eta biotikoen ezaugarriak aztertuko dira, bai elementu bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik, bai haien elkarreraginaren ikuspuntutik, eta ingurumenaren uneko egoeraren ikuspegi integratua emango da.

Planaren eraginpeko eremutzat hartuko da, hura kokatzen den eremu osoaz gain, eremu horren ingurunerik hurbilena, baina soilik Planaren ekintzek ingurumen-ondorio nabarmenak izan ditzaketen guneak.

Ingurumenaren kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterketetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den izenburua, urtea eta egilea, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitekeen lana osorik kontsultatzeko.

Azterketak ingurunearen aldagaiak jasoko ditu, eskala egokiko planoetan.

6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

Honako ingurumen-alderdi hauek aintzat hartuko dira gutxienez:

a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, masak eta ur-puntuak, ingurune hidrikoaren inbentarioa (lurrazaleko eta lurpeko ur-masak), faktore klimatikoak eta lurzoru mota.

b. Natura-ondarea. Jasota utziko dira dauden natura-intereseko eta interes ekologikoko elementuak, hala nola ibaien ibilguak, Batasunaren intereseko habitata, landaredia, mehatxatutako fauna- eta flora-espezieen banaketa-eremuak, naturagune babestuek, hezeguneak, interes geologikoko lekuak eta abar. Dauden elementuen kontserbazio-egoerari buruzko datuak emango dira, baita interes-mailari, urrakortasunari eta gaur egungo presioei eta arriskuei buruzko datuak ere, eta Plana gauzatzearen ondorioz areagotzeko arriskua ote duten adieraziko da.

lido horretatik, zehatz-mehatz deskribatu beharko da hartutako antolamendu-alternatibak zer landarediri eragingo dion, landare mota bakoitzaren okupazio-azalera, kontserbazio-egoera eta funtzionaltasun ekologikoa adierazita.

Eremuko landaredi aloktono inbaditzaileko espezie guztiak identifikatu beharko dira.

Hemen nabarmendu behar da Ibaizabal ibaia eremutik igarotzen denean, «hobetu beharreko tartetzat» jotzen dela, bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) kudeaketa-planean xedatutakoaren arabera. Eremu horretan igaraba (*Lutra lutra*) ere egon daiteke. Halaber, espedientean dauden txostenen arabera, Ibaizabal ibaiaren ertzean Batasunaren intereseko «91EO* Haltzadiak eta lizardiak» habitata dago. Gainera, Basauriko udalerrian *Lucanus cervus* koleoptero saproxilikoaren espeziea dagoela aipatu da. Intsektu hori «interes bereziko» espezie gisa dago jasota Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan.

c. Paisaia. Pertzepzioaren ikuspuntutik interesekoa den elementurik dagoen aztertuko da.

d. Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Arriskuei buruz jaso diren datu guztiak emango dira, hala nola lurpeko uren urrakortasunari, uholde-arriskuari, arrisku geoteknikoei, klima-aldaketak eragindako arriskuei edo aipatzeko moduko beste edozein ingurumen-arriskuri buruzkoak.

Orobat, airearen, uraren edo lurzorua kalitateari dagokionez hautemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Kutsagarriak izan daitezkeen iturriak eta kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak jasan dituzten lurzorua identifikatuko dira, eta natura-baliabideen erabilgarritasuna aztertuko da, bereziki, urarena.

Arreta berezia jarriko da, besteak beste, uholde-arriskuko eremuetan (eremu hori 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholdeak izan daitezkeen eremuaren barnean dago, eta, aldi berean, uholde-arrisku handiko eremuan (UAHE) dago, ES017-BIZ-12-1 kodea, ibai-jatorria duena), 48015-00055 kodea duen lurzatian (lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioan, lhobek egindakoan, sartuta dago) eta aurreikusitako erabilera berrietarako kalitate akustikoan, eremua bide- eta trenbide-azpiegiturretatik hurbil baitago.

Hala dagokionean, aipatutako ingurumen-arrisku eta -arazoen eraginpean gera daitezkeen eremuko guneak identifikatu eta lokalizatuko dira.

e. Kultura-ondarea. Antzemandako elementu bakoitzaren garrantzia, kalteberatasuna, babes-tresna eta babes-maila adieraziko dira. Era berean, kultura-ondasunari kalifikazioa eta babes ematen dizkion xedapen arauemailearen aipamena ere egingo da. Apartatu honetan nabarmendu behar da jarduera-eremuan La Basconia SA lantegiarenak diren eraikinak daudela (Bizkaiko Labe Garaiak). Eraikin horiek babes ertaineko proposamena dute: La Basconia SA (20. fitxa):

- ljezketa berriko pabiloia (20-4 fitxa)

- ljezketa berriko pabiloia (20-5 fitxa)

Mota horretako higiezinetan baimendutako jarduketak jasotzen dituen araudia bete beharko da, espedientean jasotako txostenen arabera.

f. Apartatu honetan, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta ez-berriztagarrien kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia, etab.), jendea bizi den eremuen presentzia eta kaltetua izan daitezkeen biztanleria eta abar.

6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapen eta datuak oinarri hartuta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko esparruan, eta labur-labur jasoko da zein diren planeko jardueren ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku garrantzitsuenak ingurumen-ebaluazioko prozesuan. Ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren eremu, elementu edo egoeretan jarri beharko da arreta, baita eragina jasan dezaketen alderdietan ere, Planean jasota dauden aldaketan ondorioz sortuko diren proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak kontuan hartuta.

Azterketak ingurumen-ikuspegitik arazotsuak izan daitezkeen eremuak hauteman beharko ditu, proposamenak haietara egokitzeke.

Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da eremuaren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu ahulak edo kalteberak ebaluatzeko aukera emango duena. Apartatu hau idazteko, ebazpen honen 3.

apartatuan aipatu diren ingurumen-arlo garrantzitsuak eta aplikatu beharreko araudietan arlo horietarako ezartzen diren mugaketak hartuko dira kontuan, gutxienez.

Kasu honetan, Planak proposatzen dituen jarduketak gauzatzea baldintzatu dezakete honako hauekin lotutako alderdiek: uholde-arriskua, Ibaizabal ibaiari lotutako natura-ondarea, kutsagarriak izan daitezkeen lurzorua egotea, kultura-ondarea eta kalitate akustikoa; hortaz, Azterketan aztertuko dira alderdi horiek.

6.3. Proposatutako Planaren ingurumen-efektuak

a. Apartatu honetan, identifikatu eta baloratu beharko da zer efektu izan ditzaketen planean bilduriko ekintzek ebazpen honen 6.2 apartatuan deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan, eta efektu horien ezaugarriak deskribatuko dira. Planaren efektuak identifikatu eta haien ezaugarriak deskribatzeko, azterketa bat egingo da jakiteko zer-nolako elkarreragina dagoen bertan aurreikusitako ekintzen eta eragina izateko arriskuan dauden ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren artean, baita zer ingurumen-arazo eta -arrisku sortu edo areagotu daitezkeen jakiteko ere.

Ezaugarrien deskribapenean, zehatz eta argi adierazi beharko da zer motatako ondorioak dauden, honako hauek bereizita: albo-ondorioak, metaketakoak, ondorio sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerakoak, ondorio iraunkorrak eta aldi baterako ondorioak.

Azterketaren 6.1.2.c apartatuan identifikatutako ekintza guzti-guztien ingurumen-ondorioak deskribatuko dira, eta berariaz aipatuko da apartatu horretan ekintzei esleitutako kodea.

Hala dagokionean, zehaztu egingo da zer efektu dakarren zenbait ekintzaren konbinazioak. Gainera, ingurumen-izaerako edozein ondorio bereiziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean eragin kaltegarri eta nabarmenak izan baditzake.

Horrela deskribatutako planaren ondorio bakoitzari, berriz, kode bat esleitu zaio. Kode hori Azterketaren hurrengo ataletan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

Beste alderdi batzuen artean, honako eragin hauek ebaluatuko dira:

- Ingurumen-azterketa estrategikoak aztertuko du Planak zer eragin izan ditzakeen uholde-arriskuari dagokionez, eta behar bezala justifikatu beharko da indarreko Plan Hidrologikoaren araudia betetzen dela, uholde-arriskuko eremuaren erabilera-mugei dagokionez. Aztertuko da, orobat, Plana bateragarria ote den Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoko Uholde Arriskua Kudeatzeko Planean ezarritakoarekin.
- Zehatz-mehatz aztertuko dira indusketen eta lur-mugimenduen eta soberakinak sortzearen ondorioz sor daitezkeen eraginak, bereziki kutsatuta egon daitezkeen eta inbentariatuta dauden lekuetan egindakoak.
- Era berean, obra-soberakinen eta hondakinen sorrerak izan ditzakeen eraginak baloratuko dira.
- Espezie aloktono inbaditzaileak sakabanatzeko arriskua baloratuko da, eta hori ez gertatzeko neurriak proposatuko dira.
- Ibaiei ibilguetan eta haien ertzetan izandako eraginak aztertuko dira. Ildo horretan, Planean proposatutako antolamenduak Ibaizabal ibaiari eta hari lotutako ur-bazterreko landarediari dagokienez dituen ondorioak ezaugarritu eta baloratuko dira. Natura-ondarearen ikuspegitik, ibaia eta landaredia interes handiko elementuak dira Planaren ingurunean, ingurumen-baldintzatzaileak errespetatzea baitago Planaren helburuen artean.
- Azterketaren bidez aztertuko da Plana bateragarria ote den kaltetu litezkeen ondare- eta kultura-intereseko elementuak izendatzearen ondoriozko babes-irizpideekin.
- Plana garatzeak ingurunean sortuko duen paisaia-inpaktua aztertu beharko da.
- Ustiapen-fasean, eremuan jarduera handitzearen ondoriozko eraginak izan daitezke, eta horrek hondakinen sorrera eta ur- eta energia-kontsumoa handitzea ekarriko du, baita eragindako mugikortasuna handitzea ere. Ingurumen-azterketa estrategikoak eragin horiek ere aztertuko ditu.
- Ingurumen-azterketa estrategikoan aztertuko da aurreikusi diren erabileretan zer mailatan beteko diren Kalitate Akustikoko Helburuak (KAH), Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritakoak. Egiaztatu beharko da etorkizunean kalitate akustikoko helburuak bete ahal izango direla Planaren antolamendu-eremuan, urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 37.

artikuluaren eta hurrengoetan jasotakoari jarraituta. Ingurumen-azterketa estrategikoak informazio hau izan beharko du:

- Soinu-iturrien analisia, arauaren 38. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Diseinu-alternatiben azterketa, arauaren 39. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.
- Kalitate akustikoko helburuak lortzeko behar diren neurrien definizioa, izapidetzen den antolamendu motara egokitua.
- Urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren I. eranskinaren I. zatiko A taulan ezarritakoaren arabera, kanpoaldean aplikatu beharreko kalitate akustikoko helburuak lurretik 2 metroko garaieran neurtuko dira; leihodun fatxadetan kanpoko aldean, berriz, eraikinaren altuera guztietan neurtuko dira.

Kontuan izango da trenbidetik 75 metro baino gutxiagora eraikinak egiteko asmoa dagoen etorkizuneko hirigintza-garapenetan bibrazio-mailen ebaluazioa jasoko dela eragin akustikoari buruzko azterlanetan, aplikatu beharreko kalitate akustikoko helburuak betetzen ote diren egiaztatzeko eta, beharrezkoa izanez gero, zuzenketa-neurriak ezartzeko.

b. Identifikatu eta kodetutako ondorio bakoitza baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.
- Ondorioen garrantzia eta irismen espaziala.
- Eragina jasateko arriskuan dagoen eremuaren balioa eta kalteberatasuna, honako hauek kontuan hartuta:
 - Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri berezirik dagoen.
 - Aurkako ingurumen-baldintzarik dagoen, airearen, uraren edo lurzoruen kalitate-estandarrak edo muga-balioak gaindi ditzakeenik.
 - Planak zer neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, ondorioak kuantifikatuko dira, eta, horretarako, neurgarriak diren datuak erabiliko dira; hain zuzen, Planaren aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzeak deskribatu diren ingurumen-faktoreen egoeran eragingo dituen aldaketek buruzkoak. Hala badagokio, ondorio horiek iragartzean zer ziurgabetasun-maila dagoen adieraziko da.

c. Halaber, ahal den neurrian, ondorioak kartografikoki lokalizatuko dira, eta, orobat, plan edo programaren zer fasetan gerta daitezkeen zehazteko ahalegina egingo da.

d. Adieraziko da detektatutako ondorio horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez Planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein plangintza-tresnari eragingo zaion.

e. Horrela deskribatutako ingurumen-ondorioak hierarkizatuko dira, eta haien garrantzi erlatiboa nabarmenduko da.

6.4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak

a. Apartatu honetan, deskribatuko da zer neurri aurreikusi diren azterketaren 6.3 apartatuan deskribatutako ingurumen-ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko, eta, hala badagokio, konpentsatzeko. Hartuko diren neurriek bermatu beharko dute ez dela ingurumen-ondorio garrantzitsurik sortuko Planaren ekintzak garatzearen eta geroago exekutatzearen ondorioz. Haien helburua izango da natura-, kultura- eta paisaia-baliabideak babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta detektatutako ingurumen-arazoen aurrean hobetu eta egokitzea.

b. Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-ondorioekin. Neurriak deskribatuko dira, eta Azterketaren 6.3 atalean identifikatutako ondorioekin —prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi direnekin— lotuko dira. Bereziki, eta beste batzuen artean, honako neurri hauek zehaztuko dira:

- «Ingurumena eta paisaia leheneratzeko proiektu» bat idatzi beharko da, Plana gauzatzearen ondorio guztietarako. Uraren Euskal Agentziaren txostenaren arabera, berreskuratzeko proiektuak eremuaren ondoko ertzean dagoen ibarbasoa benetan leheneratzea aurreikusiko du, eta berreskuratu beharko diren azalerak, erabili beharko diren espezieak, aurrekontua, gauzatze-epeak eta abar zehaztuko

ditu. Berreskuratze-proiektuak espezie autoktonoak landatzea eta dagoen landaredi inbaditzailea kentzea barne hartuko ditu.

- Espazio libreetan naturalizatutako eremuak mantentzeko tratamendua lehenetsiko da, eta, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritzarekin bat etorriz, Ibaizabal ibaiaren ertzaren inguruan ingurumen-kalitatea leheneratzea/hobetzea ahalbidetuko duten neurriak ezarriko dira. Espazio libreak diseinatzeko, lhobek argitaratutako *Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburua* kontuan hartzea gomendatzen da.
- «Ibai-ibilguen kontserbazio eta hobekuntza aktiboa» 2.2.1 zuzentarau nagusia Bisoi europarra Bizkaian kudeatzeko planean (118/2006 Foru Dekretua) jasota dagoena, aplikatu behar da, eta HAPBak ziurtatu beharko du bisoi europarraren habitatak zaindu, mantendu edo berreskuratuko direla. Zehazki, komenigarria da bisoi europarraren «hobetu beharreko tarteak» hirigintza-plangintzan aurreikusitako eraikuntza-espazio libreen parte izatea.
- Habitata eta espeziea beharrezkoak diren baldintzetan mantentzera zuzendutako babes-neurriak ezarriko dira, baita habitata berreskuratzea zuzendutako zuzenketa-neurriak ere, habitatak espeziearen gutxieneko eskakizunak betetzen ez dituen kasuetan.
- Eremuan dagoen landaredi aloktono inbaditzailea ezabatu eta kudeatzeko, haren hedapena kontrolatzeko neurriak hartu beharko dira, eta hura desagerrarazteko prozedura zehaztu beharko da.
- Zuhazti autoktono heldua (hostozabal autoktonoak) zaindu egin beharko da eta hirigintza-plangintzan aurreikusitako eraikuntzarako espazio libreen parte ere izango da.
- Beharrezkoak diren lur-mugimenduak egitean, ibai-ekosisteman (ur-bazterreko landaredia barne) ez dela eraginik izango bermatu beharko da.
- Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan jasota dauden lurzatietan egiten diren jarduketek (hala nola hondeaketak eta lur-mugimenduak) ekainaren 25eko 4/2015 Legea eta abenduaren 26ko 209/2019 Dekretua (zeinaren bidez garatzen baita ekainaren 25eko 4/2015 Legea) bete beharko dituzte.
- Uholde-arriskuari dagokionez, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Espainiako zatiko Plan Hidrologikoaren araudia (urtarrilaren 24ko 35/2023 Dekretua) bete beharko du Planak, erabilerei ezarritako mugei dagokionez, lurzoru urbanizatuko lehentasunezko fluxu-eremuan eta uholde-arriskuko gainerako eremuan (43. eta 45. artikulua).

Uraren Euskal Agentziaren txostena kontuan hartuta, Planean berariaz adierazi beharko da etorkizuneko urbanizazio-proiektuak azterlan hidrauliko bat izan beharko duela, obrek uholde-arriskuan duten eragina aztertuko duena, indarrean dagoen araudia betetzen dela bermatzeko, eta obra horien ondorioz ez dela areagotzen uholde-arriskuaren aurrean pertsonen eta ondasunen segurtasunaren kalteberatasuna.

Jabari publiko hidraulikoaren babes-eremuetan (zortasun- edo zaintza-eremuetan) egin behar diren jarduketek Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren nahitaezko baimena eduki beharko dute. Baimen hori Uraren Euskal Agentziak izapidetuko du.

- Uraren Euskal Agentziaren txostenarekin bat etorriz, ingurumen-azterketa estrategikoan argi eta garbi adierazi beharko da eraikin berriek, osagai hidraulikoak, ingurumen-arlokoak eta hirigintza-arlokoak kontuan hartuta egindako ur-bazterrearen sailkapenaren arabera, 15 metroko atzerapena errespetatu behar dutela Ibaizabalen bideratze-lerrora.
- Ingurumen-azterketa estrategikoak xehetasun-maila nahikoarekin identifikatuko ditu lurrazaleko eta lurpeko uren kalitatea murriztea saihesteko neurriak, bai obra-fasean, bai ustiapen-fasean.
- Gaur egun indarrean dagoen Plan Hidrologikoaren araudian ezarritakoa (48. artikulua) kontuan hartuko da, honako honi dagokionez: hirigintza-garapen berriek behar-beharrezkoak diren azaleretara mugatu beharko dute zoladura edo okupazio iragazgaitza, eta lehendik zegoen egoerarekin alderatuta jariatze-urak ugaritzen badira, hori konpentsa daitekeela edo garrantzirik gabekoa dela bermatuko duten drainatze jasangarriko sistemak erabili beharko dituzte (zoladura iragazkorra, ekaitz-tangak edo -gailuak eta abar). Plan Bereziak mota horretako sistema posibleen proposamena eta ebaluazioa egin beharko ditu. Sortutako jariatze-uren tratamendua aurreikusiko da.

- Kultura-ondarea babesteari dagokionez, Euskal Kultur Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean ezarritakoa hartuko da kontuan.
- Sortutako hondakinak behar bezala kudeatzeko neurriak ezarriko dira, gaian indarrean dagoen araudiaren arabera.
- Neurriak ezarriko dira garapenen energia-aurrezpena eta -efizientzia, mugikortasun jasagarria eta energia berriztagarrien sustapena bultzatzeko.
- Hala badagokio, kalitate akustikoaren helburuak lortzeko behar diren neurriak ezarriko dira, EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 40. artikuluan zehaztutakoaren arabera eta eremu akustikoak eta erabilera aurreikusiak kontuan hartuta. Etorkizunean ezin izango da hirigintza-garapenik egin kanpoaldeko kalitate akustikoko helburuak betetzen ez diren eremuetan, aipatutako Dekretuaren 43. eta 45. artikuluetan ezarritakoa alde batera utzi gabe. Era berean, beharrezkoak diren zuzenketa-neurriak ezarri beharko dira, etorkizuneko etxebizitzetako lursailaren koten bibrazio-mailak betetzeko, eraikinen barruan aplikatu behar diren kalitate akustikoko helburuak gaindi ez ditzaten.
- Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak eskatzen duenarekin bat etorritik, klima-aldaketa izan lezakeen eragina arindu eta hartara egokitzeko neurriak barne hartuko ditu ingurumen-azterketa estrategikoak. Xede horrekin, lhobek egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: «Klima-aldaketa egokitzeko udal-programak egiteko gidaliburua. Udalsarea 21eko lan-koaderno» eta «Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketa egokitzeko». Era berean, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 Legean hirigintza-plangintzarako adierazten diren neurriak bultzatuko dira.
- Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren maiatzaren 20ko 7/2021 Legean ezarritakoarekin bat etorritik, Plana garatzeko proiektuak diseinatzeko, klima-aldaketa aurrean pixkanaka eta erresilientzia egokitzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira kontuan. Adibidez, klima-aldaketa egokitzeko eta «bero-uharte efektua» gutxitzeko asmoz, jarduketak ahalbidetzen badu, hiri-babesleku klimatiko gisa funtzionatuko duten itzalguneak sortu eta ingurunea naturalizatzeko prozesuak sustatuko dira.

c. Adieraziko da proposatutako neurriak planaren zein zatitan txertatu diren, eta espresuki adieraziko da planaren zein dokumentu teknikotan jaso diren.

d. Hala badagokio, prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak proposatuko dira, horiek aplikatzea komenigarria edo egingarria denean, bai plangintzaren geroagoko fase edo etapetan, bai Plana gauzatzeko diseinatzen diren etorkizuneko proiektuetan.

e. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio- eta zuzenketa-neurrien aurrekontua ere jasoko da, eta horrez gain, horiek gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona zein den adieraziko da.

6.5. Ingurumena zaintzeko programa

a. Azterketak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du, eta, hartan, Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Alderdi hauek kontrolatzea izango dute helburu neurri horiek:

- Planak ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko aurreikusi diren neurriak behar bezala ezartzen direla gainbegiratzea.
- Ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera zaintzea, baita Plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoen bilakaera ere.
- Plana gauzatzeak eragindako ingurumen-ondorioak aztertzea, aurreikusi gabeko ondorio kaltegarriak azkar identifikatzeko ez ezik, haiek eragozteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartzeko ere.
- Plana egikaritzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den aztertzea.

b. Jarraipen-neurriak identifikatuko dira, eta neurri horiek bat etorri beharko dute Azterketaren 6.4 atalean jasotako babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriekin.

c. Ingurumena zaintzeko programak Azterketan proposatzen diren adierazleak jaso beharko ditu, baita —kasu bakoitzean— datuak biltzeko erabiliko diren aldizkakotasunari eta metodoei buruzko proposamen zehatz bat ere.

6.6. Ingurumen-laburpena

a. Ingurumen-alderdiak Planean nola txertatu diren deskribatuko da. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren Azterketaren 6.1.1 atalean ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

b. Aztertuko da zer-nolako probabilitatea dagoen Planak ingurumenean ondorio nabarmenak izateko etorkizunean, eta behar diren argudioak emango dira honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes-, zuzenketa- edo konpentsazio-neurriak Planean txertatuz gero, oso arrisku txikia dagoela eragin nabarmen horiek gertatzeko eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik Plana garatzeko. Ondorio hori gauzatzeko, Azterketaren gainerako ataletan jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

6.7. Laburpen ez-teknikoa

a. Azterketak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, eta ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonen erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du laburpen horrek.

b. Laburpen horri, gainera, egindako ebaluazioa hobeto ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa erantsi beharko zaio, edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

7. Jendaurreko informazioko izapideak eta kontsultak

Abenduaren 9ko 21/2013 Dekretuaren 21. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 73. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, organo substantiboak jendaurrean jarriko du Planaren hasierako bertsioa, baita ingurumen-azterketa estrategikoa ere, gutxienez 45 egun balioduneko epean.

Era berean, organo substantiboak, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 73. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, gutxienez, irismen-dokumentu hau egiteko kontsulta egin zaien administrazio publiko ukituen eta interesdunen eskura jarriko ditu Planaren hasierako bertsioa eta ingurumen-azterketa estrategikoa, azter ditzaten. Hona hemen egindako kontsulten zerrenda:

- Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarekiko Egokitzapenaren Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza
- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza. Bizkaiko Osasun Lurralde Ordezkaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- URA Uraren Euskal Agentzia.
- ETS Euskal Trenbide Sarea.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Saila, Kultura Zuzendaritza.
- Ingurumeneko Zuzendaritza. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Ekologistak Martxan.
- Eguzki. Eguzkizaleak aisialdirako elkarteak.
- Áncora elkarteak, kultura-ondarearen kontserbaziokoak.

Era berean, Sagarrak Ekologista Taldearen idazkia jaso da. Elkarte horren helburuen artean ingurumena eta gure inguruneko bizi-kalitatea defendatzea eta kultura ekologikoa zabaltzea daude.

8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak

Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio ingurumen-organismoari, honako hauek barnean hartuta: planaren edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak, eta laburpen-dokumentu bat, planaren edo programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola txertatu diren azaltzen duena: ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta hori irismen-agirira nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza, eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko, behar bezala bete beharko dira Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estrategikoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2inginp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tramitacion_eae/eu_def/adjuntos/2022_Dokumentuak-aurkezteko-GIDA_v4.pdf

Bigarrena. – Ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentuak lau urteko epean izango du balioa, hura sustatzaileari jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Baliozkotasuna galduko du epe hori igaro bada eta jendaurreko informazioaren izapidea hasi ez bada.

Hirugarrena. – Ebazpen honen edukia jakinaraztea bai Basauriko Udalari bai planaren sustatzaileari.

Laugarrena. – Ebazpen hau Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 14a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria

Nicolás García-Borreguero Uribe